

# BURDINAREN BIDEAK INDUSTRIALIZAZIOAREN HASMENTA EUSKAL HERRIAN

UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEENTZAKO AZALPENAK



Zerain



Legazpi



Ormaiztegi

**Publikoa:**

Adin guztientzako

**Taldeak:** Gehienez 30 pertsonako bi talde.

**Edukiak:**

- Zerain:
  - Aizpitta Adieraztegia
  - "Polborina" galeria
- Legazpi:
  - Euskal Burdinaren Museoa
  - Mirandaolako Burdinola
- Ormaiztegi
  - Ormaiztegi trenzubia

**Iraupena:**

- Zerain: ordu eta erdi
- Legazpi: ordu eta erdi
- Ormaiztegi: Ordu erdi

**Hizkuntzak:**

Euskara eta Gaztelania

## UNITATE DIDAKTIKOA:

Ibilbide honen haria burdingintza da, burdinaren estrakzioa eta ondorengo lana, eskuz zein modu industrialean, baita honen erabilera arkitektonikoa ere. Ezinbesteko erreferentzia dugu burdina euskal historia eta oraina ulertzeko; Zerain, Legazpi eta Ormaiztegin paisaiaren osagarri ere bilakatu da burdina.

## HELBURUA:

- Burdinaren bidea ezagutzea, erazte eta manipulaziotik bere erabilera arkitektonikoraino.

## KONPETENTZIAK:

- Jakin-mina eta errespetua historiaren eta honen lekuko den ondarearen aurrean.
- Hiztegi espezifiko eskuratzea
- Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea.

## IBILBIDEAREN EDUKIAK:

**Zerain Paisaia Kulturean, Aizpeako Meategietan**, XI. mendetik hasi eta XX. mende erdialdera arte burdina ustiari hasi da. Ustiatu honi esker paisaia berezi bat garatu da: Burdinaren Lurretakoa. Euskal Herriaren historian garrantzi itzela izan duen burdinaren ustiatuaren garapen osoa ezagutzeko aukera eskaintzen da. Meategi hauek Legazpi eta inguruko burdinolak meaz hornitzen zituen. **Aizpitta Interpretazio Zentroaren** bidez, gehiago hurbilduko gara Burdinaren Mendiko historiara. **Kiskaltze labeak** ere ikusiko ditugu eta bisitaldia **Polborina galerian** amaituko dugu.

Ibilbidearen hurrengo geldiunea **Mirandaolako Parkea da, Legazpin. Euskal Burdinaren Museoan**, Euskal Herriaren XI. mendetik XVIII. menderarte burdinak izan zuen garrantziaz jabetuko gara, lanbideak, gizartea, paisaia, etab, nolakoa zen aztertuko dugularik. Ondoren **Mirandaolako Burdinola** famatua ikusteko aukera izango dugu, non nahi izanez gero olagizonek martxan jarri dezakete, bertan garaiko teknologia, energi iturriak, eta burdina lortzeko pauso guztiak ikasiko ditugu. (burdinola martxan jarri gabe ere ikus daiteke azalpenak bideo baten bitartez ikusiz)

Legazpitik **Ormaiztegi** joango gara, **XIX. mendeko trenzubia** ikustera: 289 metro luzeko trenzubi eraikin monumentalak, 18.000 tona burdin biltzen dituen, burdinak ematen dituen joko ezberdinen erakusgarri da. Eiffelen aurreko Alexander Lavalley ingeniariak egindako benetako maisu lana da, indarren kalkulari eta burdinaren erabilerrari dagokionez.

### Erreserbak eta informazioa:

#### ZERAINGO TURISMO BULEGOA

943 80 15 05

[turismobulegoa@zerain.eus](mailto:turismobulegoa@zerain.eus)

[www.zerain.eus](http://www.zerain.eus)

#### LENBUR FUNDAZIOA

943 73 04 28

[mirandaola@lenbur.com](mailto:mirandaola@lenbur.com)

[www.lenbur.com](http://www.lenbur.com)

#### ZUMALAKARREGI MUSEOA

943 88 99 00

[mzumalakarregi@gipuzkoa.eus](mailto:mzumalakarregi@gipuzkoa.eus)

[www.zumalakarregimuseoa.eus](http://www.zumalakarregimuseoa.eus)

## BISITALDIAREN NONDIK NORAKOAK:

- Ibilbidea goiz osoko bisitaldia bezala planteatzen da:

**10:00 - 11:30: Zerain. Burdinaren mendia:**

- Aizpitta Adieraztegia
- Kiskaltze labeak
- "Polborina" galeria

**12:00 – 13:30: Legazpi. Mirandaolako Parkea:**

- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

**14:00 - 14:30: Ormaiztegi. XIX. mendeko Trenzubia:**

- Trenzubia

**Iraupena guztira:** 3 ordu eta 30min

- Ibilbidearen prezioa: Hiru museotako sarrerak eta bisita gidatuak barne:


### 1. Aukera:

Lekua	Edukiak	Iraupena	Prezioa bakoitzeko
Zerain	· Aizpitta Adieraztegia · Kiskaltze Labeak eta "Polborina" galeria	ordu t'erdi	6,5 €
Legazpi	· Euskal Burdinaren Museoa pelikularekin · Burdinola martxan jarri gabe	ordu t'erdi	
Ormaiztegi	· XIX. mendeko trenzubia	ordu erdi	

### 2. Aukera:

Lekua	Edukiak	Iraupena	Prezioa bakoitzeko
Zerain	· Aizpitta Adieraztegia · Kiskaltze Labeak eta "Polborina" galeria	ordu t'erdi	11 €
Legazpi	· Euskal Burdinaren Museora bisita gidatua · Burdinola martxan <b>(Ola gizonak + ola pintxoak)</b>	ordu t'erdi	
Ormaiztegi	· XIX. mendeko trenzubia	ordu erdi	

## IBILBIDEAREN PLANOA:



## OHARRAK:

- Bisitaldiaren ordena alda daiteke taldeen kopuruaren arabera, baina, oro har, denek ibilbide bera egingo dute.
- Jakina, edozein iradokizun aditzeko prest gaude: ordutegia, bisitaren ordena, ibilbide barruko lehentasun edo interesak, eta abar.